



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
204.zkia . 2007ko azaroa



HASI DIRA NEGUKO JARDUNALDIAK

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



CLUB NAUTICO HONDARRIBIA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Abian da XVI. Txiste Grafikoen Lehiaketa



Udaleko Euskara Zerbitzuak XVI. Txiste Grafikoen Lehiaketa antolatu du beste urte batez. Lehiaketa honetan edonork parte har dezake, eta hiru maila izango ditu: A maila, 16 urtez gorakoentzat, B maila 12 urtetik 16 bitartekoentzat eta D maila 12 urtetik beherakoentzat.

Gaia eta teknikak libreak izango dira eta lan bakoitzak orri bat bakarrik izan beharko du. Gainera, testua ezin bestekoa da eta euskaraz izan beharko du.

Lanak Hondarribiko Udaletxeko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira 2006ko abenduaren 12ko 12:00ak baino lehen.

Epea igarota, aurkeztutako lan guztien erakusketa jarriko da Zuloaga Etxean eta hori amaitzean esan beharra dago egile bakoitzak jaso ahal izango duela.

Argazkia: Floren Portu



Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK AZAROAN ETA ABENDUAN

18- Alameda Harresilanda, 9943 645798
 25- Erauskin San Pedro, 22943 641018
 2- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g 943 642191
 6- Alameda Harresilanda, 9943 645798
 8- Mayi MartinezAlmirante Alonso kalea, z/g .943 642191
 9- Iraola San Pedro, 5943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK AZAROAN ETA ABENDUAN

18- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
 25- Arratibel Mendelu auzoan943 641975
 2- Garmendia Portuan943 641136
 6- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
 8- Arratibel Mendelu auzoan943 641975
 9- Garmendia Portuan943 641136

Txingudiko Zerbitzua Elordi eta Atalerrekara bisita gidatuekin hasi da

Txingudiko Zerbitzuak Irun eta Hondarribiko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe guztiekin harremanetan jarri da aurtengo ikasturtean uraren ziklo integralarekin loturiko instalazioak ikusteko bisita gidatuen zerbitzu iraunkorra doan beren eskura dutela jakinarazteko.

Ikasturte honetan Endarako urtegia, Elordiko Edateko Ura Tratatzeko Planta, Hondartzako hondakin uren Ponpaketa Planta eta Atalerrekako Hondakin Uren Araztegia bisitatu ahal izango dituzte ikasleek. Energia aprobetxatzeko (biogasa eta sortze energetikoa) lohien tratamendua egiten da araztegi horretan.

Bisitak taldeka egingo dira, 10 eta 40 ikasle artean bakoitzean, eta ingurumen hezitzaile batzuek gidatuko dituzte. Horiek ahaleginduko dira bisiten edukia talde bakoitzaren ezagutza maila eta ezaugarrietara egokitze. Astearte eta ostiraleko egingo dira azaroaren amaiera arte. Otsaila eta maiatza bitartean ere egin ahal izango dira bisita horiek.

Joan den ikasturtean, guztira 1.972 ikasle izan ziren Mankomunitatearen uraren ziklo integralarekin loturiko instalazioak ikusten, horien artean Talaia, Ama Guadalupe ikastetxeak eta Udal Euskaltegiak. Era berean, goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitateetako ikasleak izan ziren Elordi eta Atalerrekako instalazioak ikusten.

Argibide gehiago nahi izanez gero edo hitzordua hartzeko deitu 943 67 06 37 telefonora, astelehenetik ostiralera goizez 9:00etatik 13:30etara eta arratsaldeaz 15:30etatik 17:30etara.



Atalerrekako araztegia

Kalean Kantuz berezia antolatu du Udal Euskara Zerbitzuak



Abestu ondoren Jostaldi pilotalekuan bazkari bat egingo da

Kalean Kantuz ekimenak ikasturte berriari ekin zion urrian San Pedro kaleko Azeri elkartearen aurrean, kantu zaharrak gogora ekarri eta taldean abesteko aukera emanaz.

Azarorako, ekitaldi berezia antolatu du Euskara Zerbitzuta, inguruko beste herrietan antzeko ekimenak egiten dituztenak gonbidatuko baitituzte. Aparteko Kalean Kantuz honekin batera, bazkaria antolatuko da Jostaldi frontoian.

Aldizkari hau itxi genuen egunerako 150 lagunek eman zuten izena bazkarian parte hartzeko. Datorren alean sakonago emango dugu berri ekitaldi honi buruz. Umore ona eta kantuak ez dira faltako.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Mintzalaguna euskaraz aritzeko programa aurkeztu da

Hondarribia eta Irungo Udalek, Irun Iruten euskara elkarteak, eta bi hirietako euskaltegiek, Mintzalaguna izeneko jarduera abian jarriko dute. Euskaldunek euskara ikasleei hizkuntza praktikatzeko laguntzea helburu duen ekimena da.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Hondarribia eta Irungo Euskara Zerbitzuetako erantzuleak, Ixabel Olazabal eta Fernando San Martín, bi hirietako udal euskaltegiak zuzendariak eta baita Irungo AEK eta Herri Jakintza euskaltegiak, Irun Iruteneko presidentea eta Maite Berruet, elkarte honetan Mintzalaguna egitasmoa dinamizatzeko ardura izango duena.

Hondarribia eta Irungo euskaldungoari deia luzatu zen, astean gutxienez ordubetez euskara ikasten ari direnekin egotera eta hauei laguntzera anima daitezen. Mintzalaguna honetan iaz, 22 bolondres euskaldun eta 58 ikaslek parte hartu zuten, gehienak, 30 eta 45 urte arteko adinekoak.

Ekimenean parte hartzeko, euskara ikasleek zein hauei lagundu nahi dieten euskaldunek izen-ematea irekita daukate urriaren 26ra arte (fitxa bete eta iruniruten@euskalnet.net helbidera bidalita, Irungo Foru kalean elkarteak duen egoitzatik goizetan pasata edota www.iruniruten.com web orriaren bitartez).



Iazko amaiera ekitaldiaren irudi bat

Aitor Kerejeta da Udalaren ordezkaria Ortzibia eta Jaizkibian




Aitor Kerejeta prentsaurreko batean

Aitor Kerejeta alkatea Jaizkibia eta Ortzibia elkarteetan Udaleko ordezkari izatea erabaki zen urriaren 10ean burutu zen Osoko Bilkuran. Ekitaldi berean, Xabier Tifek Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoan lan bera egitea onartu zen.

Jaizkibia, Pasaia badiaren birgaitzea bultzatzeko sortu den elkarte da. Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak elkartearen %75 daukate, eta gainontzekoa Donostia, Hondarribia, Irun, Pasaia, Errenteria, Lezo eta Oiartzungo udalen esku dago.

Bien bitartean, Ortzibia Hondarribiko aireportuaren sustapenerako sortutako elkarte da, eta bertan Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Hondarribia, Irun eta Donostiako Udalek eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak osatzen dute.



54.000 euro bideratu dira Kultur Arloko laguntzetarako



Epea hilaren 23an amaitzen da

Kultura departamentuak 54.000 euro bideratu ditu aurtur hiriko elkarte desberdinei zuzendutako dirulaguntzentzat. Eskaerak aurkezteko epea hilaren 23an amaitzen da BAZen, Udaletxearen beheko solairuan. Ordutegia, goizez 9:00etatik 13:30etara irekitzen da eta arratsaldean 16:00etatik 18:00etara.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaz gain, udal laguntzak jaso nahi dituzten elkarte eta asoziazio desberdinek urtean zehar prestatu eta antolatzen dituzten ekitaldien deskribapen bat egin beharko dute, urteko ekintzen programaren edo eskatutako dirulaguntzaren xede den proiektuaren deskribapen zehatza hain zuzen. Hortaz gain, entitate eskatzailearen ibilbidea egiaztatzen duen txostena ere aurkeztu beharko dute: kideak, helburuak, garatutako jarduerak, etab., entitateak azken bi urteetan dirulaguntzarik jaso ez badu.

Kultura Departamentuko Teknikariak aztertuko ditu eskaerak eta Batzordeak emango ditu horien proposamenak eta ebazteko eskumena duen organori aurkeztuko diote.

Diru-laguntzak emateko kontuan hartuko diren irizpideak honako hauek dira: proposatutako egitarauaren ezaugarriak (gehienez %55 bitarte), entitate eskatzailearen ezaugarriak (gehienez %15 bitarte) eta entitatearen finantza-baliabideak (gehienez %15 bitarte).

Frantziako bost hiri sar daitezke Erdi Aroko Hirien Sarean



Paradorean egin zen Sarearen aurkezpen eguneko argazkia

Urriaren erdialdean bildu ziren Madrilen Erdi Aroko Hirien Sareko ordezkariak. Almazán (Soria), Coria (Cáceres), Olivenza (Badajoz), Pedraza (Segovia), Sos del Rey Católico (Zaragoza), Lizarra (Nafarroa), Laguardia (Araba), Consuegra (Toledo), Sigüenza (Guadalajara) eta Hondarribiko alkate eta turismo teknikariek zenbait erabaki hartu zituzten. Horien artean Fitur azokarako liburuxka prestatu eta aurkeztea, eta besteak beste, Erdi Aroko Hirien Sarearen webgunea frantsesera eta ingelesera itzultzea.

Azkenik, hamar hirien artean egingo den pintxo txapelketa 2008ko apirilko azken asteburuan Consuegran egitea erabaki zuen Hondarribiaren ordezkari modura Aitor Kerejeta izan zuen lehen bilkura honek.

Kerejetak, gainera, sarean sartzeko interesa duten hirien berri eman zuen. Donibane Garazi, Nérac, Oloron-Sainte Marie, Sarlat eta Saint Emilion dira aipatutako hiriak.

Zentzu honetan, Olivenzako Udalaren bitartez, Portugalen, sarean parte hartzeko interesa duten hirien bila ahaleginetan jarraituko du Erdi Aroko Hirien Sareak.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...

EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

foto
FRANAN

BAKARRIK

3,58.-euro

Zuloaga, 4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Zaborren tasak %2'84an egin du gora eta urarenak %4'84



Zabor kontenedoreak Denda kalean

Urriaren 29 astelehenean eginiko batzarrean, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak %4,34ko igoera onartu zuen uraren fakturretan eta %2,84koa, berriz, zaborretan. Bi onarpen horiek beharrezko botoen gehiengoa izan zuten, PSE-EE, EAJ eta EAren botoekin, hain zuzen ere. EB eta EAEEK ez zuten botorik eman.

Zaborraren tasan %2,84 igoera hori KPI baino txikiagoa da; ego- kitu egin da kontuan izanik San Markosko zabortegeian egoera orain arte bezala mantenduko dela. Halaz ere, igoera hori handitu liteke hondakin guztiak betiko Sasieta eta Lapatxeko zabortegeietara eramaten hasten badira. Kasu horretan, egoera berria aztertuko lukete Batzarkideek.

Uraren igoera ordea, %4,34koa izango da. Aurreko urteekin parekatuta igoera geldoagoa da eta datozen urteetan egonkortu egingo da. Datorren urtean, gainera, Atalerrekako araztegiaren epekako errebisioak hasiko dira.

Azkenik, Txingudiko Mankomunitatetik esan zaigu: "ziurtatu egi- ten da tarifak parekatzen ari dira Gipuzkoan, eta hemendik gutxira, herrialdekoekin alderatuta txikiagoak izango dira gure eskualdekoak".

Tasak %3,5 igoko dira 2008 urtean

Urriaren ospatu zen Osoko Bilkurak datorren urterako tasak %3,5 igotzea erabaki zuen, horretarako EAJ eta EAren baiezko botoarekin. Hortaz gain, Jostaldi pilotalektuaren tasak bertan behera geratzea erabaki zen, orain Hondartza Kirol- degitik kudeatzen delako, baita hirian zirkoak jartzeko tasak kentzea ere, horrela gehiagotan jarriko direlakoan.

Aitor Kerejeta alkateak "hiriak eskaintzen dituen zerbitzuak onak" direla esan zuen. "Jakin badakigu beti hobetu daitezkeela, eta horre- tan jardungo gara, baina ezin duguna da hiria zortean sartu, eta horregatik gastu arruntak kontrolatu egin behar ditugu".

Bilkuran adierazenez, ezindutako pertsonentzat ematen diren bai- menak aztertuko dira, beharrak eta dauden baimen kopuruak ahal den neurrian parekatzeko asmoz. Ezintasuna daukatenei baimena emango zaie baina datozen asteetan azterketa bat egingo da beha- rrak zenbatekoak diren zehazteko.



Zirkoentzat zegoen tasa desagertu egin da



BARR
ONDARRIBI

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Bidasoako surflariak elkartasun proiektu batean murgildu dira

Peruko lurrikarak sortutako kalteak leuntzen saiatuko dira surf-aren bidez



Bidasoako surflariak ez dira bakarrik bere diziplinan aritzen

UhinGain Surf Elkarteak elkartasun proiektu bat jarri du abian, 'Hand&Surf' izenekoa, Peru garatuko dena hain zuzen. Elkarteko lau kide izango dira abentura honetan murgilduko direnak: Mikel Aguirre, Javi Iraizoz, Rafa Martinez eta Javi Gonzalez. Aurtengo abuztuan Peruk jasandako lurrikarak, behinik behin, ondorio positibo hau ekarri du, surflari bidasoarrak hartara hurbiltzea bertoko hurrei laguntzera.

Mikel Agirrek azaltzen duenez, "Peruko umeen irrifarra lortzea da helburua, bizi duten egoera denbora batez ahortzi dezatela bilatzen dugu". Horretarako, Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jarri ondok, Pisco eta Trujillo hirietako hurrei zuzendutako doako surf ikastaro ibiltaria antolatu dute.

Azaroaren amaieran abiatuko dira Trujillo aldera, eta hilabete oso batez erdi-hegoaldean arituko dira lanean. Printzipioz abenduan etxera itzuliko dira. Baina aurrerantzean ikastaroekin jarraituko duen monitore bat hartuko dute.

Emakumea pilotari bigarren denboraldia hasi da



Gero eta emakume gehiagok jokatzen du palan

Urriaren 27an hasi zen Jostaldi Pilotalekuan 'Emakumea Pilotari' proiektuaren bigarren urtea, paleta gomazko zenbait partidarekin.

Txapeketa hau Tolosako Beotibarren hasi zen duela aste batzuk, Donostiako Altza auzoan jokatu zen bigarren jardunaldia eta hirugarrena, aldiz, gure herrian garatu da.

Txapelketak parte hartzaile kopurua igo du bere bigarren edizioa den honetan, eta guztira, 12 emakume bikote ariko dira norgehiagokan Jostaldin, bi mailatan banatuta.

Partida hauetaz aparte, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Federazioak bultzatzen duten Emakumea Pilotari proiektu honek bere bigarren faseari heldu berri dio.

Hondarribian, bertako Pilota Eskola da proiektua gidatzen duena. Eskola kirolean, Hondarribian, 10 neska aritu ziren lanean eskola kirolean, baina ez da momentuz, heldu eta federatueta inor animatu.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema



ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Irakurri 2007 kanpaina abian jarri da liburutegian



Euskal Herriko liburutegietan egin den ekimena da

Euskal Herriko liburutegietan hasi den kanpaina baten barnean, Zuloaga Etxean ere irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahi da. 5.300 bazkide ditu udal-liburutegiak, hau da biztanlegoaren herena.

Nerabe eta haurren irakurzaletasuna sustatzeko lanetan dabilta udal-liburutegietan. Hondarribikoan, adibidez, "beste euskarri batzuen bidez, DVDak, filmeak, musika diskak, komikiak etabar luze baten bidez erakartzen saiatzen gara", ziurtatu du Kote Guevarak. Baina arlo horretan erantzuna nahiko pobrea dela, aitortzen dute arduradunek eta "lan asko" egin behar delakoan daude.

Euskadiko Liburutegien Sareko partaide diren 166 liburutegiek, zenbait ekimen berezi antolatu baitituzte. "Liburu bat, adixkide bat" ekimena da guztien artean lehena.

Bestalde, haur eta nerabeen irakurzaletasuna bultzatzeko xedez, bi ekimen konkretu antolatu dituzte Euskadiko Liburutegien Sarean. Haurtzaroan gurasoek duten ardura kontuan hartuta, 3-6 urte bitarteko umeei bideratutako gida bat eskainiko dute liburutegiek. Azkenik, 12-16 urteko gaztetxoentzat irakurzaletasuna gai gisa hartuta, argazki lehiaketa bat antolatu da ere.

Kerejeta, Pelaez eta Tife izango dira ordezkariak Partzuergoan

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak duela egun gutxi osatu du bere Kontseilu Orokor berria. Aitor Kerejeta Hondarribiko alkatea izango da presidente berria, Hendaiaiko alkate den Kotte Ecenarro presidente-ordea, eta Jose Antonio Santano bigarrena.

Horiekin batera, Udaleko ordezkariak izango dira Xabier Tife Kultura eta Kirol zinegotzia eta Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako ordezkaria Partzuergoko bileretan. Beraiekin batera egongo dira Irungo Udaletik joandako Juana de Bengoechea eta M^a Eugenia Iparragirre, eta Hendaiaiko Jean Baptiste Etcheverry eta Jean François Durandeau.



Xabier Tife da Udalaren ordezkarietako bat Partzuergoan



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Talaia ikastetxeko lanak otsailerako amaituko dira



Egun Talaia ikastetxearen zentroak irudi hau aurkezten du

Talaia Ikastetxeak Baserritar Etorbidean duen eraikina, orain artean Pedro Aginagalde bezala ezagutua izan den eskola, goitik behera aldatzen ari dira. Duela hilabete batzuk hasi ziren birgaitze lanak, eta datorren urteko otsailerako amaituak egotea espero da.

Ixabel Olazabalek Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak aditzera eman duenez, "lanak ondo doaz denbora aldetik. Duela gutxi izan ginen bisita bat egiten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuko zuzendari den Arantza Lakarekin batera. Oso inpresio ona eman zigun".

Lanak otsailerako amaituko balira, hurrengo hilabeteetan garraio lanak hasiko lirateke, irailetik aurrera Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren arteko ikasleak jasotzeko.

Gaur egun 861 ikasle dauzka Talaia (363 Lehen Hezkuntzan eta 498 Haur Hezkuntzan), bost ikastetxetan banatzen direlarik. Pedro Aginagaldeko eraikina prest dagoenean, Puntala eta Soro-etakoak hustu egingo dira, eta ordutik aurrera, Biteri, Satarka eta Pedro Aginagalde izango dira Talaia-aren eraikinak.

Jaurlaritzaren baldintzak errespetatuz itsaskiak harrapatzen dira egunero



Ikuskizun aparta eskaintzen dute itsaski harrapatzaileek

Eusko Jaurlaritzak itsaskiak harrapatzeko zenbait kondizio jarri zituen irailean Bidasoa ibaiaren bokaletik Puntalera doan ur zatian. Han hartzen diran itsaskiak aztertu egingo dira arrantzaleak saldu aurretik. Bien bitartean, Puntaletik aireportura doan ur zatian, ezin izango da itsaskirik harrapatu Eusko Jaurlaritzak esan duenez.

Baldintza hauek errespetatuz, ehundaka dira itsaskiak harrapatzera hurbildu direnak. Marea behean dagoenean irudi ikusgarriak sortzen dira Bidasoa Ibilbidearen aurrez-aurre.

Hondarribian jarri den debeku hau, Mundaka eta Plentzian ere egin da. Itsaski harrapaketarako irekita dauden guneeetan, hauek dira hartu ahal izango diran espezieak: ostrak, nabajak, berberetxoak, txirlak eta muxilak. Muskuiluak harrapatzea erabat debekatu da dago.

Aise
BIDASOA

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Itsaskari baitak lanean jarraitzen du udazkenean



Itsaskari Batako kideak laster Mallorcara joango dira

Udako ikastaroekin bukatu eta gero, Hondarribiko Itsaskari Baitako Bela Eskolako ikasleak, Euskal Bela Federakuntzako Liga-ko bela estropadetarako entrenatzen hasi dira duela aste gutxi.

Ondorengo klaseetan nabigatzen dute gure ikasleek: Optimist (34 kide), 420 (14 kide) eta Laser (4 kide).

Irailean hasitako Liga honetako lehenengo estropada, Hondarribian ospatu zen, eta proba bakarra burutu ahal izan zen, haizeak ez baitzuen lagundu. Hala ere, gure ikasleek lehenengo postuetan amaitzea lortu zuten. Ondorengo bi estropadetan ere, haizeak ez zuen lagundu. Irailaren bukaeran, Abran (Bizkaia), proba bat bakarrik egin zen eta urriaren hirugarren asteburuan, Getarian ospatu behar zen proban, bertan behera geratu zen. Hurrengo proba, azaroaren 17-18an izango da Donostian. Ea honakoa, haizeak, kirolariei laguntzen dien.

Azpimarratzekoa da, sailkapenean, lehenengo 10etatik, 8 herritarrek direla Optimist Kategorian. Bien bitartean, 420 eta Laser kategorietako sailkapenetan, hondarribiarrak aurreneko postuetan dabilta ere bai.

Abenduan, Palma de Mallorca-n, 400 optimist-ek parte hartuko duten nazioarteko estropada batetan, Euskal Bela Federakuntzako taldeak nabigatuko du, eta talde hau osatzen duten 8 haurretatik, 6 gure elkarteak dira. Hemendik zorte onena opa diegu.

Euskal Herrian 3400 itsasontzi- rentzako lekua dago kirol portuetan



Kirol Portua Gipuzkoako handiena da

Gipuzkoa eta Bizkaiko kirol portuetan 3.400 itsasontzirentzako lekua dute dagoeneko, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez. Azken alean esan genuen bezala, Hondarribia da Gipuzkoako handiena. Orioko kirol portu inauguratu berriak 296 ontzirentzako lekua du, eta 7,8 milioi eurotako inbertsioa egin dute bertan. 12 metro luzera arteko ontziak sartu ahal izango dira portu berrian.

Instalazio berri hauek kontuan hartuta, Gipuzkoak 2.200 kirol ontzirentzako lekua dauka, dagoeneko, han eta hemen azken urteotan egin dituzten portuetan, besteak beste, Hondarribia, Donostia, Getaria, Zumaia, Deba eta Orion. Orioko kirol portua Euskadiko Kirol Portuak (EKP) enpresak kudeatuko du, Hondarribia bezalaxe.

Bizkaiari dagokionez, bi kirol portu daude. Handiena Getxokoa da, eta 827 ontzirentzako lekua du. Bermeokoak 353 leku ditu. EKPk kirol portu guztiak kudeatzen ditu, salbu eta Debakoa --enpresa pribatu baten esku--, eta Zumaia eta Bermeokoak --Eusko Jaurlaritzak ere parte hartzen duen bi elkarten esku--.

Eusko Jaurlaritzatik aipatu dutenez, gero eta ontzi gehiagorentzako lekua dagoen arren, oraindik ere ez da iritsi dagoen eskari guztia asetzerara.

Kirol Portuei buruz informazio gehiago nahi duenak, www.ekpsa.com orria begiratu



HONDARRIBIAKO ITSASKARI BAITA

Pº. R. Irribarren, s/n - Apartado, 88 - Telef. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es - 20280 HONDARRIBIA



**EUSKADIKO
KIROL
PORTUAK**

**PUERTOS
DEPORTIVOS
DE EUSKADI**

www.ekpsa.com



HONDARRIBIA FUTBOL ELKARTEA, kirola baino gehiago



Ia berrehun gazte dabilta urte osoan zehar futbolean Hondarribian. 2007/2008 denboraldirako Elkartek bederatzi talde ditu, Gorengoen Mailatik hasi eta Alebinetan bukatuta. Bidean, bi jubenil, bi kadete, bi infantil eta emakumezkoen beste bat daude. Hori gutxi balitz, Futbol Eskola antolatu du, orain urrian hasiko dena. Udako hilabeteetan Udako Futbol Eskola garatzen da. Haue-tan, bi eskolak batuta, 270 haur aritzen dira. Gazte hauen formakuntzan aritzeko Elkartek 12 entre-natzaile ditu, futbol federaturako, eta beste 18 futbol eskoletarako. Elkarteko zuzendaritza batzorde-arekin izan gara gehiago jakiteko. Ez dute argazkian atera nahi, eguneroko lanean jarraitzea baita bere asmoa, eta ez prentsan agertzea.

Zein da Hondarribia Elkarteen filosofia?

Gure elkarteak ez dauka kirol funtzioa bakarrik (Hondarribiko gazteen artean futbola egiteko aukera sustatu eta garatzea), horretaz gain funtzio sozial nabaria baitauka (gazteek izan ditzazketen akatsak zuzendu eta gizarte izaera sendotzea). Elkarteen barnean etorkizuneko futbolari amateur edota profesionalak egon daitezke, baina gehienentzat futbola dibertsioa eta bere ikasketa edo lan orduen gehigarri bat izango da, betiko gogoratuko duena gainera.

Horregatik, Elkarteen helburua heziketa osagaiak (puntualitatea, arauetiko errespetua, lagunkidetasuna...) garbitasun edo higie-ne osagaietako (dutxa, elikadura, ekipamendua...) bateratzea izango da, eta

nola ez, futbolarekin zuzenki loturiko osagaietako ere, hala nola, pres-takuntza fisikoa eta entrenamendu tekniko eta taktikoa.

Horri lotuta antolatzen al duzue Futbol Eskola?

Bai. Elkartek bere harrobian gogor lan egiten du. Hori dela eta, urte batzuk dira Futbol Eskolarekin hasi zela, haurren formazioa eta kirol izaera ezinbesteko oinarri direlarik egitasmo honetan. Bi eskola des-berdin dauzkagu. Alde batetik, Neguko Eskola urrian hasten da eta denboraldi berdineko maiatzean amaitzen. Izenemate orriak ikastetxeetan banatu dira eta 1997 eta 1998 urteetan jaiotako mutil eta neskek parte hartzeko aukera dute. Udako eskola aldiz, 2008ko uztai-lean burutuko da eta bertan, 1994 eta 2002an jaiotako mutil neskek


AXOLA INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

AINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

parte hartzeko aukera paregabea izango dute.

Larunbatetan Kiroldegian egiten den eskolarteko futbola ere zuen ardura al da?

Horrela da bai. Hondarribia Futbol Elkartek mutil eta nesketako alebin zein benjamín kategorietako eskoletako futbolaren ardura darama. Egutegia Udala eta hezkuntza zentroekin batera egiten da. 2007-2008ko egutegia berehala erdialdera hasiko da.

Elkartearen historia labur bat egingo al zenukete?

Elkartea 1971. urteko apirilean sortu zen, herriko zaletu batzuen aholaginarik bere fruituak eman ostean. Lehen presidentea Jaime Lizaso Ruiz de Arbulo izan zen, eta berarekin batera zuzendaritza batzorde hartan Manuel Pardavila, Juan Leon Gaztañazpi, Aquilino Ugarte, Blas Marcos, Julian Agirre, Miguel Puerta, Victoriano Auzmendi, Andoni Sagrado, Jose Miguel Taberna eta Ignacio Olasagasti egon ziren. Juan Leon Gaztañazpi eta Jaime Lizasok gogor lan egin zuten elkarrekin eta eurek erabaki zuten herriko elkarte guztiak deitu eta lanean hasia. Urte hartan hasi ziren hondartzan aritzen ziren gazteekin lanean.

Kluba sortu eta berehala, zelairik ez zegoenez, lehen lau partiduak Gal Stadium-en jokatu ziren, gero Ventas-en eta Beran. Gaur egun Ondartzako kirol gunea dagoen tokian irla txiki bat geratu zen hondartzako lanak burutu zirenean, eta han ikusi zuten aukera arduradunek. Lurra neurtu, Udaleria jo eta 1972ko urtarrilean hasi ziren han partiduak jokatzeko. Orduan zelaiak 'El Peñón' zuen izena, gero Ondartza bihurtuko zena. Ura ez zen drenatzen, eta urte osoan lokaztuta egoten zen. 1975eko

maiatzean obrak egin ziren eta urrian zelai berrian jokatzeko hasi ziren. Gero etorriko ziren aldagela berriak, harmailak...

Jakiterik al da zenbat izan diren herrian futboleko aritu direnak?

Ehundaka izan dira urte hauetan guztietan Elkartetik igaro diran jokalariek. Hasieran Preferenteko taldea soilik zegoen, baina denborak aurrera egin ahala eta lana ongi egiten zen seinale, kategoria desberdinak sortu ziren: erregionala, jubenilak, kadeteak, infantilak, neskak...

Elkartetik igaro direnen artean, esanguratsuenak hauek lirateke: Joseba Llorente, Unai Emery, Kote Pikabea, David Villabona, eta jakina, hainbat urtetan hain izen ona eman dioten kirolari anonimo guztiak.

Oker ez bagaude, web orri bat sortu duzute, ezta?

Bai. www.hondarribiafe.com orria sortu dugu hasi berri dugun denboraldi honetan. Bertan topa dezakegu Elkartearen historiaren berri, taldeak, asteroko emaitzak eta sailkapenak, futbol eskolak, jokalariek eta taldeen gaurko eta atzoko argazkiak, bazkide egiteko aukera... Elkarteko zuzendaritza batzordeak eta zenbait entrenatzaileen artean egin dute, eta orain artean oso harrera ona izan du.



Udako Futbol Eskolan parte hartu zuten gazteen irudi bat

Askotan esan izan da Hondarribia Futbol Elkartea gobernuz kanpoko erakunde bat bezalakoa dela. Edozein egunetan Kiroldegia ondoan dagoen futbol zelaitik igarotzen bagara, horrela dela ikusiko dugu. Etengabe ikusten dira haur, gazte eta ez hain gazteak baloien atzetik korrika. Baina hori hala izan dadin, seguro lan itzela egiten dutela entrenatzaile eta zuzendaritza batzordeko kideek. Segi horrela!



Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

EUSKO-MEKO



1.690 €


**Boogies
QUADS
125 cc**



1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Udazkena



Martin Iturbe

Txikitan bizi izan genituenak, atejoka sartu ohi dira gure oroimenaren sukaldera.

Udazkena bazuen zeresanik baserrietako bizieran. Artaldeak izango siren ezaugarri nagusi, Aralar utzi eta beheko barrutietara agertzen zirenean. Sanmioletan entzungo genkituen lehenengo makakorroak, udaldi osoan oporretan iraun zuen txabola zaharra negu gustirako bizileku hartzera zetozenean.

Sagastiak ere ez zeuden isilik egotekotan. Urteko beren erasoak tolareetara izuria zuten garai honen besoetan. Muztioa bere egoanean, irakin-ALDIARI zor zaion epea emateaz gero, txotxerako prestatzen joango zen.

Zer esan arto-soroegi begira jarriz gero? Urtealdiak bizkarra makurtuz zeraman bitartean, ganbara zaharretan lekuak pretsatu beharra izan ohi zen, soroetako emaitzaren pozez mandioak ase zitezten. Neguan izango zen, hori bai, artozuritzeak leku nagusia berarentzat eskatuko zuen garairik egokiena. Hamaika kontu zahar dantzatzeko zituzten ilunabarretako ekinaldietan guraso eta adinekoen mingainek, ume koxkorren belarrietara lehendabizikoz zetozen ipuin atseginak kontatuz.

Soro-zelaietan egin beharrekoek ez zuten agortzen baserriko lanbidea. Basoetara ere begiratu beharra zegoen.

Garoak, orbela, gaztainak... zereginik asko izan ohi zen garai bereizi hartan.

Guzti horrek oroimen sakona utzi du, garai batean biziera horri lotuak ibili ginenongan.

Honez aparte, udazkenak, azaroa barne, esanahi eta sinbolo ugari darama barne-muinean. Hurrengo batean sinboloen mundu horretara zuzenduko ditut begiak, denboraldoko jakin honek zer nolako oihartzuna nere bizitzan uztu duen esan-amoza.

Gaurkoa burutzeko, LIZARDI olerkari haundiaren hitzetara bilduko naiz.

“HONDAR GORRI” (Udazken) izenburua daraman olerkari nora:

Hark erabili zuen idakera errespetatu egingo dut.

AZARO-LEENA

Uda - suzko itsaso - baitut ibili
gerizpe atsegin bat nuela untzi,
ondoa legorra yo dit emeki:
ondarreta bat du, soi eta gorri.

(Itsasoak bai-baitu, urrun-ertzean,
urre gorrizko bide-goenean,
legor bat --odol-uts iñularrean --
Eguzki nondik sar atsedenean..)

Aingura bota dut Arratsaldean:
oña dut ezarri UDAZKENEAN...

Oi, zein dan ituna
beera-bear au!
Nik ez naiz eguna
biurtzerik gau !

Giroen argia galtzerakoan
leen-oiartzuna dut ozen gogoan.
Iru giro izanok, nik dei ta atozte:
nork-zeren saria ekardazute:
batak itxaro, besteak berpizte;
irugarrenak bizitza-indar beet
oro bear zaitutze ene boitzak,

leen-min baidama neurtiz zaaren otsak

((ETA HIRU URTAROEN MAMIA AITORTU ONDOREN (Negu, udaberri, uda),

AZKEN AIPAMENA UDAZKENARI EGINEZ BURUTZEN DU OLERKIA))

(Udazken)

Ta udazken atsarreko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean.

TRUCK DISCOTECA
HONDARRIBIA Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12

ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

“ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN” !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Espainiako Gobernuak **segurtasunagatik pista laburtuko** dela berretsi du

Hondarribiko aireportuko pista laburtuko dutela berretsi du Espainiako Gobernuak, Europak ezartzen dituen segurtasun neurriak betetze aldera.

Magdalena Alvarez Espainiako Sustapen ministroak agerraldia egin zuen azaroaren 7an Senatuan, EAJk egindako galdera bati erantzuteko. Xabier Albistur jeltzaleak ministroari galdetu zion ea zer iritzi duen Ortzibia elkarteak pista luzatzeko egindako proposamenari buruz.

Ministroak hitzetan, "Europako segurtasun neurriak bete egin behar diraa, eta horretarako hainbat aukera daude: pista luzatzea Hendaiaiko lurretan; luzatzea Irungo lurretan; edota egungo pista-ren luzerari eutsi, eta bertan egitea 300 metroko segurtasun eremua".

Gaiari lotuta, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak esan zutenez, ministroaren erantzunak ez dio aterik itxi aireportua handitzeko egindako eskariari. Bi erakunde hauen



Gero eta zalantza gehiago daude aireportuaren pistaren inguruan

ustez, Alvarezek Senatuan esandako hitzek ez dute aldatzen orain arteko egoera.

Azkenik, Javier Campos aireportuko pista luzatzearen aurkako plataformaren bozeramalea pozik agertu zen Magdalena Alvarez ministroak esandako hitzekin. "Hendaian egiten ari diren mugimenduak ez dira ahaztu behar ere".

Muliateko etxebizitzak direla eta **Migel Lesaka baserria** desagertu da

Azken alean Muliateko Babes Ofizialeko etxebizitzak egiteko, Muliate baserria desegin behar izan dela esan genuen. Baina errepidea pasata kañabera artean gordeta zegoen Migel Lesaka baserria ere bota behar izan dela esatea ahaztu zitzaigun. Hori dela eta, egoki da egindako hutsa konpontzea eta baserriaren desagertpenaren berri ematea.

2003. urtean Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Kote Guevara

eta Koldo Ortegak idatzitako "Hondarribiko Baserriak" liburuan irakur dezakegunez, 'Migel Lesaka' baserriaren lehen berria Magdalena Lesakak 1673. urtean egindako testamentuan agertzen da. Testamentu honetan, Muliate auzoko etxetxo eta sagastia azaltzen da. Migel Lesaka herriko eskribau izan zen, Esteban Lesakaren seme ez legitimoa, eta Magdalenaren anaiordekoa. Ia segurua da baserriak haren izena hartu zuela.



Ezkerrean Migel Lesaka baserriaren irudi zahar bat. Gaur egun inguruak eskuinean ikus daitekeen itxura hau aurkezten du.

Azaroaren 11an hasiko di

Gaineran ditugu berriz Euskara Zerbitzutik antolatzen diren Neguko Jardunaldiak. Euskaraz bizi eta sentitzen duten guztientzat pentsatutako jarduera sorta bat da, gazte zein heldu, kirol zein kultur izaerako ekitaldi sorta aberatsa prestatu da aurten ere Euskara Zerbitzutik.

"Kalean Kantuz" delakoaren ekitaldi berezia izango dugu, bazkari herrikoi batekin, eta nola ez, Hondarribia Euskaraz txirrinda martxa, haurrentzat magia ikuskizuna, antzerkia, liburu eta diska azoka eta Literatur Lehiaketako sari banaketa izango ditugu abenduaren 24ean amaituko diren ekitaldi guzti hauen protagonistak.

Azaroak 11
Igandea**"KALEAN KANTUZ"**

(Ekitaldi berezia, beste herrietako en partaidetzarekin. Ondoren herri-bazkaria)

Lekua: **San Pedro kalea**

Ordua: **12:00ak**

Azaroak 18
Igandea**"HONDARRIBIA EUSKARAZ"**

Txirrinda martxa, haur eta helduentzat

(Hondarribia Txirrindulari Elkartearen laguntzarekin)

Irteera: Hondartza kiroldegiaren aurrean

Helmuga: **Santiago kalean**

Ordua: **9:30etik 12:00etara**

(Aurreko urteetan bezala kamisetak banatuko zaizkie parte hartzaileei)

"GAUR JAIA" (Haurrentzat herri kirolak eta jokoak)

Lekua: **Santiago kalea**

Ordua: **12:00etatik 13:00etara**

Azaroak 22
Osteguna**"MAGIC CLOWNS" HAURENTZAT IKUSKIZUNA**

Pailazoen umorea eta magiaren misterioa ikuskizun berri batean. Ahaztu ikusi duzuen guztia eta Magic Clownsen munduan sartu, bertan magia, clown, dantza eta beste arte asko elkartzen dira artista hauen eskutik.

Lekua: **Hondartza Kiroldegian**

Ordua: **18:00etan**



ra Neguko Jardunaldiak



Abenduak 1
Larunbata

"BOTA PATSA" ANTZERKIA

Joseba Usabiaga (Goenkaleko Tximista) eta Iker Galartza (Vaya Semanita) aktoreek parte hartzen dute antzezlan honetan. "Bizitzan edozer lortzeko izerdia bota beharra dago". Horrela laburbiltzen du Usabiaga aktore tolosarrak, Galartza aktore tolosarrarekin batera idatzi eta interpretatzen duen Bota patsa! antzezlan.

Lekua: **Amuteko Auzo Elkartean**

Ordua: **19:30etan**

Abenduak 14
Ostirala

"Bidasoako arrantzaleak Ternuan"

Rosa Arburuaren hitzaldia eta erreportaje grafikoa, Bertan Bidasoa aldetik bakailaoaren arrantzara joaten zen jendearen bizimodua azalduko du.

Lekua: **Udaletxeko Areto Nagusia**

Ordua: **19:30etan**

Abenduak 23
Igandea

LITERATUR LEHIAKETAKO SARIBANAKETA

XXIV. Bordari (ipuina) eta Satarka (olerkia) Lehiaketako irabazleek sariak jaso ondoren, beren lanen azalpentxoak egingo dute bildutako guztien gozamenerako.

Lekua: **Udaletxeko Areto Nagusia**

Ordua: **12:00ak**

Abenduak 19-24
Asteazkenetik-
astelehenera

EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Urtero bezala, euskal liburugintza eta diskogintzako azken lanak ikusteko eta erosteko aukera.

Lekua: **San Pedro kalea**

Ordua: **10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara**



Bertso berriak Koro Erasori

Bizargorrik jarriak



Doinua: "Goizuetan bada gizon bat"

Jesus Maria Mendizabal

-1-

Goizuetan behin bazen neska bat
deitua Koro Eraso,
Hondarribiak bere altzoan
gerora zuena jaso.
Hogeita zazpi urte hauetan
lanari dio eraso.

-2-

Lanari zion eraso eta
umil serbitu herria.
Udaletxean finki ariki
hutsune bat igerria:
euskararena hark sortua da
Departamendu berria.

-3-

Garai haietan alkate zena
gure Oronoz Alfontso...
Bat bilatzeko eskatu zidan
(gogoan daukat ondotoxo)
eta hainbaten artean Koro
neuk hautatu nuen, kontxo!

-4-

Harrez geroztik bulegoetan
zenbat ordu ta ezordu!
Handik kanpora gogoz kontrara
hamaikatxo bat otordu...
Hogeita zazpi orduko lanak
guztion eskerra zor du.

-5-

Mende laurden bat pasako lanak
auskalo zenbat segundo!
Departamendu-efikaziaz
txarrik ez duzu entzungo...
Langile onak ez du, halare,
fama beharrik egundo

-6-

Korok berakin baitaramatza
langile onaren famak,
ta gazte-emanu baitu oraindik
jubilatu zaigun damak,
mila zori on sor biezaio
ondorengo panoramak.

-7-

Aspaldidanik seinalagarri
berek ditu bi nahiak:
batetik, ene!, bere loreak;
bestetik, berriz, bidaiak...
Gaurtik aurrera badu non eman
berrogei urteko jaiak!

-8-

Lore artean bidaiak, beraz...
abioi edo treneko...
Hala ta ere, poxa betea
ez luke aldameneko
baldin alboan ai ez baleuka
biloba kuttun Eneko.

-9-

Udalarentzat hainbeste ordu
eman duzu aspaldion.
Zure ezagun koadrilak hara
esker onean zer dion:
"Itxian eta itxetik kanpo,
URTE ASKOAN ZORI ON!".



Jesus Mari Mendizabal
"Bizargorri"
Hondarribian, 2007ko urrian

Txirrindulari Elkarteak amaitu du aurtengo denboraldia

Hondarribia Txirrindulari Elkarteak amaitu du denboraldia. Beste kirol diziplina askotan kirol denboraldiak irailean edo urrian hasten badira ere, afizionatuen txirrindularitzaren kasuan ez da hala izaten. Urte haseratik hor ikusten ditugu txirrindulariak jo ta su, eta irailaren amaiera eta urriarekin batera, amaitutzat ematen dute urtea.

Hondarribia Txirrindularitza Elkarteak urtea amaitzeko Guadalupera igoera bat egiten dute, eta bertako Kantinan, Elkarteak bazkideak gosari batetara gonbidatzen ditu. Urriaren erdialdera izaten ohi da, eta urteko irteerarik lasaiena da.

300 bazkide inguru ditu Elkarteak. Zuzendaritza Batzordean aldaketa eman da, eta azken lau urteetan presidente lanetan aritu den Txomin Oronozek tokia utzi egin dio Juan Jose Ormazabali.



Urte amaitzeko, Guadalupen txirrindulariek irudi hau atera zuten

26 neskek eman dute izena nesken etorkizuneko taldean



Alebin kategoriako nesken eskola futbol txapelketa hasi da

Denetara 26 neskek eman dute izena Hondarribia Futbol Elkarteak Futbol-8ko infantil talde bat sortzeko egindako deialdian. Gaztetxoak, 1995 eta 1996 urteetan jaioak, ostiralero entrenatzen dute belar artifizialeko zelaian arratsaldeko 17.00etatik 18.30etara. Entrenatzaile lanetan Naiara Salinas dabil, eta Mikel Jauregi du laguntzaile, hastapenetan gutxienez.

26 jokalaria hauetatik, denboraldia amaitzen denean hautaketa bat egin beharko du Elkarteak, infantil kategorian gehienez Futbol-8rako 15 lizentzia eduki daitezke.

Hondarribia Futbol Elkartetik sortuko den talde hau 1995-96 denboralditik hona lanean ari den Emakumezkoen taldearen harrobi izatea nahi da. Irudian ikus dezakegun eskola futbol txapelketan parte hartzen duten neska askok eman dute izena talde berrian,

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA

ENDANEIA

HAZTEGI - VIVERO

LORE ETA LANDARE BINTEGI BERRIAN
ETXEA LORATZEN DENAR DEZUN GUZTIA



Kofradiak web orria berritu eta egokitu du

Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak bere web orria berritu egin du. www.kofradia.org gunea euskarri aktibo eta dinamikoa bilakatu da, eta Hondarribiko arrantzari buruz jakin nahi dugun guztia bertan topatuko dugu.

Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez irakurri daiteke, eta zenbait atal desberdintzen dira: 'Nortzuk garen', Lonja, instalazioak, gaurko eta aitzineko ontziak, arrantza motak, estatistikak, historia eta tradizioa, eta kontaktuan jartzeko aukera.

Informazioaz gain, argazki eta estatistika ugari gehitzen ditu, eta Kofradian egiten den lana ahalik eta gehien ezagutaraztea du helburu web gune berrituak. Historia eta tradizioari ere bere tokia irekitzen zaio. Hala, Kutxa entrega zer den, aintzineko ontzien irudiak eta abar luze bat topatuko ditugu bertan.

Aurkezpenean esaten den bezala, "irabazi-asmorik gabeko erakundea da Kofradia. Helburu nagusia Kofradiako kideen beharrei erantzun ematea da. Hornidura, tresna, izotza, aholkularitza, erakundee-kiko harremanak eta abar. Kofradiak arrantzalea bere lan gogorrerako ahalik eta ondoen prestaturik egon dadin lan egiten du, talde honen interesak eta beharrak taldekatuz".



ARRANTZALE KOFRANDIAN URRIAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 22.604,00 kilo
Hegalaburra (Thunnus thynnus): 1.860, 70kilo.
Hegaluzea (Thunnus alalunga): 239.073,95 kilo.
Atun moja (Thunnus obesus): 11.965,00 kilo.
Dorada (Sparus aurata): 5.971,30 kilo.
Erla (Lithognathus mormyrus): 10.996,30 kilo.
Boga (Boops Boops): 2.148,90 kilo.
Sardina (Sardina Pilchardus): 74.056,60 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 229.794,00 kilo.
Lanpo (Euthynnus pelamis): 17.456,40 kilo.
Zarakuntza (Oblada Melanura): 1.081,00 kilo.
Korroko (Chelon Labrosus): 4.561,40 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 1.971,40 kilo.
Zapatari (Gerris): 555,90 kilo.
Lanpo sabel marradun (Euthynnus pelamis): 43,00 kilo.
Lupia (Dicentrarchus labrax): 51,50 kilo.
Bestelakoak: 198,30 kilo.

(Fermin Olaskoaga jasotako datuak)



Hautzaindegiairen proiektua aurrera doa

I Hautzaindegi berria 2010 urte hasierarako martxan izango da eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat 108 plaza egongo dira". Hala esan zuen, behintzat, Aitor Kerejeta alkateak urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuraren ondoren deitu zuen prentsaurrekoan.

EAJ, EA, PSE-EE, EB eta PPK proiektuari eta esleipen lehia-
ketari baietza eman zioten. EAEk aldiz, nahiz eta alde agertu
zen, aurkako botoa eman zion, dokumentazioa gatzelera
hutsez jasotzeagatik.

Aitor Kerejetak esan zuenez, "lehiaketa abian dago orain, Lanak 2008ko maiatza edo ekainean hasiko dira, eta hautzaindegia 2010 urte hasierarako amaituta egotea espero dugu. Haurreskola partzuergoaren barnean sartuko da".

Loraitzeko hautzaindegiauren aurrekontua 2,17 milioi eurokoa da. Azalera 2.138 metro karratukoa izango da, beheko solairuan 1.159 metro, 65 metro gehiago bulegoak egiteko lehen solairuan eta beste 914 metro garaje bat egiteko. Bertan, 30 edo 35 autorentzat tokia izango da.



*Irudian ikus dezakegun argazki moldaketa hau etorki-
zuneko hautzaindegia da. Faroko igoera hasi eta eskuinalde-
an dagoen berdegunean egingo da, Loraitz etxebizitzaren aurrez
aurre. Lurpeko garaje bat izango du langile eta gurasoek era-
biltzeko.*

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel. fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

2008-2012ko drogamenpekotasunen prebentziorako udal plana aurkeztu da

Lau mahai komunitario osatuko dira iritzi desberdinak jasotzeko

Udaletxeko Areto Nagusian aurkeztu zen azaroaren 6an datorren 2008-2012 Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Udal Plana. Bertan izan ziren Aitor Kerejeta Alkatea, Richar Sanchez orain artean Prebentzio Komunitarioaren zerbitzuko koordinatzailea, eta Marijo Blanco, aurrerantzean bere funtzioak beteko dituen.

Sanchezek esan zuenez, "lau urte dira Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak udal plana aurkeztu zuela. Bertan, drogamenpekotasunen prebentziorako hainbat estrategia ezartzeaz gain, garatu beharreko esku hartze ildo berriak ezarri ziren. Orain, datozen lau urteetarako berdina egin behar dugu".

"Momento hartan" jarraitu zuen Sanchezek, "oso positiboa izan zen partehartze prozesu bat diseinatu genuen eta orain ere, partehartze hau sendotzeko, Mahai Komunitarioak izango dira



Mahai komunitarioen aurkezpeneko argazkia, ezkerretik eskuinera, Richard Sanchez, Aitor Kerejeta eta Marijo Blanco

oinarri nagusia. Lau mahai egingo dira, hilaren erditik aurrera hasiko delarik lana".

Marijo Blancok osatu diren lau mahai komunitarioen berri eman zuen. "Lehen mahaia Gazteri Arlokoa da, azaroaren 12an hasiko dena. Bigarrena Osasun Arlokoa da, hurrengo egunean

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva Ionia - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

garatuko dena. Hirugarrena, Gizarteratze Komunitario Arlokoa, asteazkenean burutuko da eta azkena, Eskola eta Familia arloak batuko dituen, ostegunean. Gure asmoa, datozen asteotan bakoitza hirutan biltzea da, eta dauden ideia eta iritziak mahai gainean jartzea".

2008ko lehen hiruhilerako

Saioak bukatu eta gero, eztabaida eta proposamen guztiak sintesi txosten batean jasoko dira eta ekarpen guzti hauekin, 2008. urteko lehen hiru hilabeteetan Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuko lan taldeak 2008-2012 Laurteko Planaren Proposamena idatziko du. "Plana egin ondoren", gehitu zuen Blancok, "partaide guztiekin itzulpeneko laugarren saio bat burutuko da beharrezkoak izan daitezken aldaketak planteatzeko".

Azkenik, aipatutako errebisio honen ostean, plan berriaren proposamena Udalbatzari aurkeztuko zaio onartua izan dadin.

Aitor Kerejeta alkatea pozik agertu zen Prebentzio Komunitario-tik egiten den lanarekin. "Isilik egiten den lana da, baina oso sakona. Badira urte batzuk hasi ginela Udaletik ekimen hau babesten, eta hartutako bideari jarraitu behar diogu, bere fruituak ematen ari da eta. Hala ere, Prebentzio kontutan denok lagundu behar dugu, eta horretarako garrantzitsuak dira aurten planteatu diren Mahai Komunitarioak, gizarteko agente desberdinek bere iritzi eta iradokizunak aurkezteko aukera izango dute eta".



Prebentzio Komunitarioa zerbitzuaren egoitza Harresilanda kalean dago. Bertan garatuko dira datozen asteotan mahai komunitarioak. Hiritar, elkarte eta agente desberdinek parte hartuko dute. Informazio gehiagorako, www.prebentzio.com helbidera jo daiteke, edota bulegotik agertu goiz edota arratsaldeko ordutegian.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

139.233 euro banatuko dira Gizarte Zerbitzuetan hainbat laguntzatarako

Biztanleen ekonomi eta gizarte garapanerako premiei eta bereziki gizarte mailarik apalenen funtsezko beharrei erantzuteko asmoz, Udalak onartutako urteko aurrekontuaren %0,7 esleitu du, aurten ere, garatu gabeko herrialdeetan kooperazio alorrean diharduten erakundeetan. Maite Pelaezek, Gizarte Ongizate arloko zinegotziak zehaztu duenez, "139.233 euro banatuko dira, gobernuz kanpoko erakunde, elkarte eta Udalak izendatutako ohiko zein larrialdietarako laguntzei bideratuak". %0,7ko dirulaguntzen kopuruari, 15.000 € gehitu dizkiote elkarteentzat eta beste 6.000 €, larrialdietarako.

Zinegotziaren esanetan, "Udalak berak izendatutako zenbait laguntza izan dira 31.794 eurokoak guztira". Horien artean, Odol Emaileen elkarteak (1.100 €), Oporrak Bakean (7.750 €), Caritas (4.000 €) edota Udalarekin akordioak dituzten Bidasoa-Bizirik erakundea eta Euskal Fondoari eman beharreko kuotak. Kasu hauetan, 6.000 € eta 3.344 € izan dira hurrenez-hurren.

Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat 98.138 € ko kopurua bideratu da. DOA (Denok Osasunaren Alde) erakundea izan da lagunduen, Hezkuntza Bereziaren alorrean Bolivian martxan jarri duten proiektua gauzatzeko baliatuko dutelarik laguntza. Taupadak erakundeak, berriz, 14.000 € jasoko ditu, Behar Bidasoak 11.000 €, ADOC Karidadeko lanen erakundeak 10.000 €, Lankidetzarako Ingeniariak (7.000 €), ELAN-Euskadi (5.000 €), Gure Laguntza (7.300 €) edota Buruntza Fundazioa 5.000 €rekin izan dira gaitzatzeko batzuk.

Gobernuz Kanpoko Erakundeez gain, Gizarte Zerbitzuetatik laguntza gehiago eman dira AFAGIK (Alzheimer Gaixoen Senideen elkarteak) 1.250 €, beste 1.100 € bana ATZEGI (Ezgaituen erakundeak) eta IZAN (Drogomenpekotasu-



naren kontrako Elkarteak). Mila eurora heltzen ez direnak ere badira: ACABE (Anorexia eta Bulimia), ADEMGI (Esklerosi multiplea), AGIPASE (Krisian diren familiak), ALCER (Giltzurungaineko gabezia), Chernobil-en Lagunak elkarteak, AECC (Minbizia), ATCORE (Bihotz eta giltzur transplantatuak), Guz-tion Artean (Senegaldar elkarteak), KATXALIN (Bularrereko minbizia), ORTZADAR (elbarrituak) eta Aurre-ratu elkarteak.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Soja, elikagai osasuntsu baten alde

Jatorriz txinatarra izaki, egun moda-modakoa dugun lekale hau arras ezezaguna da, bejetarianismoari atxikitako sektoreentzat izan ezik. Osasunean eta nutrizioan agertu dituen propietateengatik, froga zientifikoetan oinarrituta, Elikagaien eta Medizinen Kontrolerako AEBko Elkartek (Food and Drug Administration) kontsumo anoa bakoitzeko gutxienez 6,25 gramo soja proteina daukaten elikagaiak ekoizten dituzten enpresei baimena eman die produktuaren ontzian hurrengo testua ezar dezaten: "Gantz ase eta kolesterol gutxiko dietan egunero 25 gramo soja proteina sartzeak bihotz trastornoak nozitzeko arriskua arin dezake."

Ernamuin, soja edari (soja esne deritzoguna) eta zuku zein jogurten osagai gisa, geroz eta presentzia ugariagoa duen elikagai horren propietateak ezagutzen hasi dira espainiar Estatuan ere.

Elikagai balioaniztuna da soja, eta bertatik hamaikatxo produktu ateratzen dira: irina, olio, lezitarra, soja edaria, tofua, gatzarekin edo gatzik gabe hartzituriako produktuak (tempeh edo tamari) eta beste hainbat, hala nola ernamuinak. Bai lizunek bai bakterioek eraginiko hartzidurari, bai hozitzeari esker (ernamuinak), elikagai eratorri horiek digeritzeko samurragoak dira eta organismoa hainbat nutriendez hornitzen da, hala nola C bitamina eta B multzoko bitaminez.

Soja eta antzeko elementu berriak osagai dutenez, egungo terminologia erabiliz, "belaunaldi berriko" bataia ditzakegun produktuak geroz eta ugariago agertzen ari dira gure dende-

tan: jogurtak, zukuak, etc., nahiz eta soja proportzio txiki-txikian daukaten. Horrenbestez, sojak gure osasunari eskaintzen dizkion mesedeez Espainian onuradun izan nahi badugu, soja lekalea, produktu eratorriak edota farmazia zein denda espezializatueta salgai dauden pilulak hartu beharko ditugu, horrela bakarrik kontsumituko dugu behar bezainbesteko dosia.



-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

-ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €

1+1 dohainik

-LIMA gorri fruitu zuku + kaltzio azukerrrik gabe

1l: 3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

-ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-BIOCOP intxaurreak 300 gr: 5,35 €

%50 unitate

-RAPUNZEL txokolate-intxaurreak, olo muesli

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

-SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €

1 + 1 dohainik

-SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

-Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

¡En HondarriBIO!

txuntxumela
tu pequeño **SUPER BIO**

SERVICIO A DOMICILIO

HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonaarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatzeko eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritzi argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzatara argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozei, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25



Azaroko jarduerak

ATZERRIAN HIZKUNTZAK IKASTEKO BEKAK

Eusko Jaurlaritzak 705 leku eskaintzen ditu Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan, Irlandan eta Canadian atzerriko hizkuntzak ikasteko.

Laguntzetan egonaldiak familietan eta ikastaroak sartzen dira.

-Noiz? 2008ko udaran.

-Norentzat? DBHko bigarren ziklokoentzat eta Batxilergokoentzat.

EPEA: Azaroak 23.

Informazio gehiago eskuratzeko:
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

"DONOSTIAKO UDAZKEN BAT"

ARGAZKI-LEHIAKETA

Argazkiak banan-banan bidaliko dira, fotos@donostia.org helbidera, egilearen izen-abizenak eta jaioterria adierazita. Nahi beste argazki bidal daitezke. Irudi bakoitzaren pisua 2 MBs izango da, gehienez.

-Epea: 2007-12-15

-Informazioa: DONOSTIAKO UDALA

-Tfnoa.: 943 481000

-Faxa: 943 426781

-Posta elek.: fotos@donostia.org

-Web or.: <http://www.donostia.org>

GOMENDATZEN DIZUT, MEREZI DU SARIA

Badaukagu irabazlea!!!!!!!

Aurtengo sariketan IGNACIO ÁLVAREZ DE ARCAJA LARRARTE Hondarribiarra izan da zozketaren irabazlea "Brighton (Inglatera)" gomendioarekin.

Ikusi nahi baduzu sartu <http://www.aizue.com/irabazleak-premiads-web-ean> eta animatu datorren urtean partehatzera!!!!

**eukeni
optika**

iruzia zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 803

**Focus
DAILIES**

iruzia zuretzat guztiontzat

Focus DAILIES

Munduko Bizi Saria

NI

iruzia zuretzat guztiontzat

Focus DAILIES

CIBA Vision



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
 Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL

San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
 20280 Hondarribia

Zein da zubi honen izena ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Zerbitzuan jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Martxoko alean jarritako galderari ia 50 pertonek erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Xabier Susperregi** da. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den eskulturaren izena "Hartza eta gurbitza" da, eta Madrildik etorritako udatiarrei zuzenduta dago. Afarirako txartela Udal Euskara Zerbitzuan jaso behar da. Bigarren saria aldiz, liburu sorta baten irabazlea, **M^a Jesús Goikoetxea** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Zezen plazako etxeak eta Alde Zaharra elkartzen dituen zubiari buruz ari gara. Izen zehatza dauka eta hori da eskatzen dizueguna.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Zerbitzura, azaroaren 30a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke edo liburu sorta ederra.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Mendelu auzoa XX. mende haseran



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, Juan José Castillok duela urte batzuk argitaratu zuen "Argazkiak Hondarribia atzo" liburura jo dugu. Argazki zaharrak gustoko dituen edonork eduki beharko lukeen liburu bat da, bilduma ona izateaz gain, argazki gehienek argazki oin bat dute eta, herriko historian gordeta dauden datuak eskaintzen direlarik.

Kasu honetan, Mendelu auzoaren irudi zahar bat dakarkigu. Ikusi besterik ez da zer nolako eraldaketa izan duen auzoak. Azken urteotan askoren ahotan dago auzoa, aireportua dela eta ez dela. Ikusi beharko da nola amaitzen den afera.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Zerbitzura eramatea besterik ez duzue.



okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

GESTIÓN:
CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:
* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGURROAK

Urria2007

JAIOTZAK URRIAN

- 3an:** **XANTAL Goñi Alkain**, Irungo Koldo eta Hondarribiko Amaiaren alaba.
- 6an:** **DANELE Atxukarro Olsagasti**, Villabonako Juan eta Irungo Maria Danielaren alaba.
- 7an:** **MARA Sagarzazu Calavia**, Hondarribiko Xavier eta Hondarribiko Susanaren alaba.
- 13an:** **IRATI Etxabe Pedrero**, Vitoria-Gasteizko Jose Ramon eta Donostiako Maria Teresaren alaba.
- 12an:** **PAULA Rodriguez Dilla**, Donostiako Carlos eta Hondarribiko Mariaren alaba.
- 15an:** **ARAIA Emazabel Fernandez**, Hondarribiko Luis eta Leongo Silviaren alaba.
- 16an:** **UNAI Barreiro El Busto**, Hondarribiko Jose Manuel eta Irungo Cristinaren semea.
- 17an:** **PABLO Etxebeste Amunarriz**, Hondarribiko Pablo Jose eta Hondarribiko Maiteren semea.
- 17an:** **IRATI Irigoyen Galan**, Getxoko Xabier eta Irungo Maria Idoiaren alaba.
- 24an:** **NAROA Zugasti Goikoetxea**, Irungo Mikel eta Hondarribiko Alejandraren alaba.
- 24an:** **ALAIN Goñi Lizarralde**, Irungo Luis Maria eta Hondarribiko Idurreren semea.



EZKONTZAK URRIAN

- 6an:** **VLADIMIRO Garcia Villaverde**, Alcorcon-koa Madril, eta **USOA Blazquez Irigoien**, Alcorcon-koa Madril.
- 12an:** **IÑIGO JOSE Sandin Smith**, Bilbokoa, eta **ITZIAR Fernandez Manterola**, Hondarribikoa.
- 13an:** **JOSEBA Llorente Etxarri**, Hondarribikoa, eta **MAITENA Elzo Aseguinolaza**, Hondarribikoa.
- 20an:** **GORKA Txapartegi Lizaso**, Irungoa, eta **MARIA Galzagorta Muñoz**, Irungoa.
- 20an:** **JOAQUIN Negrodo Moreno**, Donostiakoa, eta **MARIA TERESA Sagarzazu Alcañiz**, Donostiakoa.
- 27an:** **FELIPE JESUS Uranga Fraiz**, Irungoa, eta **IZARO Dager Garaialde**, Hondarribikoa.
- 27an:** **FRANCISCO Ezeiza Rodriguez**, Hondarribikoa, eta **AINHOA Herrera Bullon**, Gernikakoa.



HERIOTZAK URRIAN

HERIOTZAK IRAILEAN

- 29an:** **JOSE LUIS Zubeldia Garaño**, kaputxinoa, Hondarribikoa, 87 urte, Amuteko komentuan.

HERIOTZAK URRIAN

- 5ean:** **LUISA ALEJANDRA Artola Sagarzazu**, Hondarribikoa, 90 urte, Murrua kalean.
- 11n:** **MICAELA FAUSTA Urteaga Ezeiza**, Hondarribikoa, 97 urte, Santiago kalean.
- 12an:** **PURIFICACION Juaniz Alonso**, Irungoa, 65 urte, Etxenagusia kalean.
- 14an:** **FRANCISCA Arruabarrena Azaldegí**, Hondarribikoa, 81 urte, Ama Guadalupekoa kalean.
- 17an:** **IGOR Hernandez Perez**, Hondarribikoa, 15 urte, Mendelu kalean.
- 24an:** **ARRITOKIETA Zabaleta Arregi**, Donostiakoa, 71 urte, Minasoroeta kalean.
- 25ean:** **MARIA CONCEPCION Errazkin Darzeles**, Hondarribikoa, 84 urte, Denda kalean.
- 28an:** **ANGEL Alacano Zubizarreta**, Bilbokoa, 86 urte, Javier Ugarte kalean.
- 30ean:** **ANA Vidal Berrotaran**, Hondarribikoa, 84 urte, San Gabriel egoitzan.
- 30ean:** **ANTONIA Gallardo Quero**, Porcinokoa Jaen, 82 urte, San Nicolas kalean.





Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

URRIAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	26,0° C, hilaren 2an.
Temperaturarik beherena:	4,6° C, hilaren 28an.
Bataz besteko tenperatura:	15,1° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 80.
Euri-litroen kopurua:	128,1 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 5ean 68,7 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 10eko 12,15etan, 42,0 litro/orduko.
Egun euritsuak:	14 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	egun 1
Behe-laino egunak:	egun 1
Ihintz egunak:	13 egun
Zeru oskarbi:	4 egun
Zeru lainotua:	16 egun
Zeru iluna:	11 egun
Eguzki kopurua:	137,2 ordu
Bataz besteko presioa:	1020,7 milibar
Presiorik gorena:	1029,2 milibar, hilaren 9an
Presiorik beherena:	1012,4 milibar, hilaren 24an
Haizea >55 Km/ord.	egun 1
Haizerik indartsuena:	hilaren 1eko 12,20tan, 55 Km/orduko.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URRIAN

Altak: Jaiotzak: 11, eta kanpotik etorriak: 79

Bajak: Hildakoak: 11, eta herritik joanak: 52

Biztanle kopuru orokorra: 16.418 bizilagun.

URRIAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 396 euskaraz, 1232 gaztelaniaz eta 372 bestelakoak. Guztira: 2000 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 23 euskaraz, 66 gaztelaniaz eta 28 bestelakoak. Guztira: 117 liburu.

Bazkide berriak: 15 gizon eta 24 emakume. Horietatik 39 heldu eta 13 haur. Guztira 39.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: *Euskeraz:* SLEGGERS, Liesbet.-Txomin lagunaren etxean.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ, F. - Mortadelo y Filemon.- Ediciones B.

Helduak: *Euskeraz:* LERTXUNDI, Anjel.-Konpainia noblean.- Alberdania

Gaztelaniaz: GRANDES, Almudena.- El corazón elado.- Tusquets.



ZIFcomunicación

Publikazioen argitalpena
Enpresen komunikazioa

Publizitate liburuxkak
Web orrialdeak

info@zifcomunicacion.com

www.zifcomunicacion.com

C/ Auzolan, 2, 2ª planta - 20303 Irun (Gipuzkoa) - Tel./ Fax: 943 63 81 28





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

te EUSKADIKO KIROL PORTUAK PUERTOS DEPORTIVOS DE EUSKADI
www.ekpsa.com

Llegamos a buen puerto

*Hondarribia
Donostia
Orre
Getaria
Bermeo*



www.doble-a.com

Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún